



ZARAUZKO UDALA

Zarauzko Udala

Gizarte Zerbitzuetako Departamentua

Gazte kooperanteentzat dirulaguntzak emateko deialdia.
2024. urtea

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK:

1. Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).
2. Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuak Departamentuko dirulaguntzak emateko Oinarri Espezifikoak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).



ZARAUZKO UDALA

1. Helburua.
2. Eskaerak.
3. Dirulagutza eskatzeko baldintzak.
4. Dirulaguntza emateko prozedura.
5. Balorazio irizpideak.
6. Ebazpena.
7. Dirulaguntzaren zenbatekoa.
8. Dirulaguntzaren ordainketa.
9. Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea.
10. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea.
11. Zuzkidura eta aurrekontuko partida.
12. Publizitatea.
13. Ebazpenean aldaketak ekar dezaketen arrazoiak.
14. Dirulaguntzak itzultzea.
15. Araudia.
16. Errekurtsuak.

1. HELBURUA

Deialdi honen helburua da gazte kooperanteei norgehiagoka prozeduraren bidez emango zaizkien dirulaguntzak arautzea. Zarauzko herritarrak herrialde behartsuen garapenean laguntzeko lankidetzak-ekintzetan sentsibilizatzeko eta herrian elkartasun kultura sustatzeko tresna bat da hau. Beraz, hautatutako pertsonak zuzenean parte hartuko dute herrialde horietako garapenerako kooperazio-ekintzetan, GGKE baten bidez.

Gastu hauek ordaindu ahalko dira: helburu herrialdean Gobernu Kanpoko Erakundearekin elkartu arteko punturaino joan eta etorriko bidaia; hala badagokio, helburu herrialdean sartu eta/edo irteteko bisak eta tasak; istripu eta gaixotasun polizak; eta helburu herrialdera joateko behar diren txertoak eta botikak.

2. ESKAERAK

Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren urteko deialdian zehazten den eskabide ofizialaren eredu bat betez egingo da eskaera, eta hilabeteko epean aurkeztu behar da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaera horiek honela egin ahal izango dira:

- Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bidez.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan.



ZARAUZKO UDALA

Eskaria aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

Proiektuak, II. Eranskineko inprimaki ereduari jarraiki aurkeztuko dira.

Eskabidearekin batera honako dokumentazioa aurkeztuko da:

1. Administrazioko dokumentuak:

- a) Eskaera-orria, behar bezala sinatua eta ziurtatua. (I. eranskina).
- b) Eskatzailearen / ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia.
- c) Curriculum Vitae-a: agertu nahi diren merituak ziurtatzeko agiriak (agiri bidez ziurtatzen diren merituak bakarrik hartuko dira kontuan)
- d) GGKE baten abala delako GGKE hori han burutzen ari den ekintzetan pertsona horrek parte har dezakeela adierazten duena, eta lan-egitasmoa edo lagunduko duen ekintzen profila.
- e) Kooperazioko lankidetzan eta boluntariorlan formazioa jaso izanaren egiaztagiria.
- f) Zerga-obligazioak eta Gizarte-segurantzarekikoak ordainduta dituela adierazten duen ziurtagiria.

Betebehar horiek bete izanaren egiaztapena errazteko, pertsona edo erakunde eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena erantsi ahal izango du, eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien egiaztapenak ekarri beharko. VI. eranskina

- g) Aurreikusten diren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua. Eskariaren xede diren ekintzengatik beste edozein laguntza zertan den adieraztea (emanda zein tramitean). II. eranskinaren bukaeran.

2. Proiektuari buruzko informazioa.

- a) Dirulaguntza eskatzen den proiektuaren gaineko azalpen txosten zehatza, balorazio irizpideetan jasotako atalak azalduz (II. eranskina)
- b) Jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen aurrekontu zehatza.

3. DIRULAGUNTZA ESKATZEKO BALDINTZAK.

ZARAUZKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEan agertzen diren baldintzez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte eskatzaileek:

- Eskaera egin aurretik, adinez nagusia izatea eta gehienez 30 urte edukitzea.
- Eskaeraren aurkezpen-data baino gutxienez urtebete lehenagotik Zarautzen erroldatuta egotea, eta GGKE batekin lan-harremanik ez izatea.
- Zarautzen erroldatuta egon gabe ere programa honetan parte hartu ahal izango dute
Zigorida kalea 33 20800 Zarautz (Gipuzkoa) Tel. 943 00 51 11 emaila: ongizatea@zarautz.eus



ZARAUZKO UDALA

Zarauzko Udalak finantziatutako lankidetzaren proiektu batean parte hartu behar dutenek.

- GGKE batek sinatutako lankidetzaren konpromiso bat, gutun bat edo berme bat edukitzea.
- Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, diruz laguntzeko programa edo jardueran genero ikuspegia txertatu beharko du.
- Garapenerako lankidetzan edota boluntariorik prestakuntza dutela egiaztatzea, edo, halakorik ezean, erakunde batek eman beharreko ikastaro bateko aurreinskripzioa aurkeztea.
- Egonaldiak irauten duen bitartean, istripu eta gaixotasun poliza edukitzea eta helburu herrialdera joateko behar diren txertoak eta botikak hartzea.
- Gutxienez 30 eguneko denboraldia egin beharko dute lankidetzaren proiektuan.

Halaber, ezingo dute deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun izan:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.
- 26/2015 Lege Organikoak, uztailearen 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak ezarritako betekizunak betetzen dituela.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).



ZARAUZKO UDALA

Kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezakete onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez daudela. Eta agiriok eskuratu ezin direnean, horien ordeaz, aitorpenarenak aurkez daitezke.

4. DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA.

Dirulaguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira, eta prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdiaren bitartez.

5. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Eskaerak baloratzeko orduan hurrengo puntuak hartuko dira kontuan:

- Jarduera egin behar den herrialdeko hizkuntza jakitea (gehienez 10 puntu).
- Eskatzaileak herrialde horretan garapenerako lankidetzaren proiektuan lanean egingo duen egonaldiaren iraupena (gehienez 15 puntu).
- Kasu bakoitzean egokienak diren titulazio akademikoa eta/edo profesionala izatea, edo espezialitate horietan ikasten ari direla ziurtatzea (gehienez 20 puntu).
- Egonaldian garatuko duen lanaren plana (gehienez 35 puntu).
- Genero ikuspegia txertatzea (gehienez 6 puntu).
- Zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako, egoera zaurgarriagoan daudenentzako eta/edo diskriminazio - edo bazterkeria-egoeran daudenentzako proiektua izatea. (gehienez 4 puntu).
- Gobernu Kanpoko Erakundeetan izandako esperientzia edo gazte elkarteetan edo helburu sozialeko beste batzuetan parte hartu izana (gehienez 10 puntu).

6. EBAZPENA

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.

Organo eskudunak:

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan adskribitutako teknikaria.



ZARAUZKO UDALA

- Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen Departamentuari dagokion informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorritik.

7. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Proiektu bakoitzerako diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da izan 1.000 eurotik gorakoa edo aurrekontu osoaren %80tik gorakoa.

Onartu beharreko dirulaguntzak murriztu ahal izango dira, denak portzentaje berean, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat edo batzuk sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa bada jarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, ez da beharrezkoa izango lehiaketaren prozedurak berez dakarren lehentasun-ordena jartzea.

8. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Deialdi honen bidez diruz lagunduko diren ekintzen berezitasunean erreparatuta, zenbatekoaren % 70 diru-laguntza ebatzen denean ordaindu ahal izango da, eta gainontzeko % 30a diruz lagundutako jarduera amaitu eta hori behar bezala justifikatu ostean.

Dena den, ordainketak aurreratu ahal izango dira (diru-laguntza emateko ebazpenean zehaztutako moduan), baldin eta aurretik justifikatzen bada finantzazio hori beharrezkoa dela diruz lagundutako jarduerak aurrera eramateko.

9. PROIEKTUA GAUZATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO EPEA

Dirulaguntza eman den urtean bertan hasi behar da proiektua, eta justifikazioa aurkezteko azken eguna 2025eko otsailaren 28a izango da.

10. DIRULAGUNTZAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

Udaleko Ordenantza Orokorraren 22.1.d) artikuluan jartzen duen bezala, onuradunak bere gastu eta diru-sarreraren guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (urteko jarduerak egiteko dirulaguntzen kasuan) edo jarduera edo programa espezifiko bati dagozkion guztiak (jarduera edo programa zehatz bat egiteko ematen den diru-laguntzaren kasuan). Beraz, diruz lagundutako proiektuaren,



ZARAUZKO UDALA

jardueraren edo programaren % 100 justifikatu behar du. Justifikatutako gastuak aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da emandako dirulaguntza.

Justifikatzeko, Justifikazio Kontu Sinplifikatua erabili ahalko da, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 75. artikuluan jartzen duen moduan, eta dokumentazio hau edukiko du:

1. Diru-laguntzaren emakidan jarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jardueramemoria bat; egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dira bertan.
2. Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren aitorten arduratsua, honakoak adierazita: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Diru-laguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
3. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen aitorten arduratsua, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita.
4. Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen eta horietatik sortutako interesen itzuleraren ordainketa-gutuna.

“Moneta-unitateak” izeneko lagin-teknikaren bidez egiaztatuko dira gastuaren frogagiriak, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Edonola ere, gastuen jatorrizko frogagiriak edo froga-balio bereko beste agiri batzuk izango dira gastuen frogagiriak. Agiriok balioa edota eraginkortasun administratiboa izango dute merkatuko trafiko juridikoan, erregelamendu bidez jarritakoaren arabera.

Diru-laguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubidea bazter utzi gabe.

11. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Deialdi honen bidez diru-laguntzak emateko zenbatekoa gehienez ere 3.000,00 eurokoa da, aurrekontuko 0501.481.02.231.81.2024ko partidari egoztekoa.

12. PUBLIZITATEA

Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak dirulaguntzen publizitate-sistema nazional gisa jardungo du.

Horretarako, administrazio emaileak erabakitako deialdi eta ebazpenei buruzko informazioa bidaliko dio BDNSri, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez.



ZARAUZKO UDALA

Emandako dirulaguntzen zerrenda Udalaren web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, onuradunak eta zenbatekoak adierazita.

Dirulaguntza jasotzen duen pertsonak edo entitateak derrigorrez adieraziko du Zarauzko Udalak diruz lagundu duela jarduera.

Zabalkunde-neurriak hauek izango dira: entitate emailearen irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, oroitzapen-plaketan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetan egindako aipamenetan.

13. EBAZPENEAN ALDAKETAK EKAR DEZAKETEN ARRAZIOIAK

Elkarte onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, dirulaguntza eman duen organoari eska diezaioke ebazpenean ezarritako epeak luzatzea dakartzaten aldaketak, emandako diru-kopurua murriztea edo jardueran sartzen diren ekintzen aldaketa egitea; aldaketa horiek baietza jasoko dute ezusteko baten ondorioz sortuak izan badira edo jarduera ondo burutzeko beharrezkoak egiten badira, baldin eta dirulaguntzaren helburua edo xedea aldatzen ez bada eta inoren eskubideak kaltetzen ez badira.

14. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

1. Oinarri hauetan edo dirulaguntzaren emakidan jarritako edozein betebeharrak betetzen ez bada, berriz aztertuko da dirulaguntza, eta, horren arabera, emandako dirulaguntza baliogabetu, murriztu edo itzuli beharko da, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoak, 37. eta 52. artikuluetan eta hurrengoetan aurreikusten duen baldintzetan.

Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutze-interesak ere bai. Itzulketa hori Zarauzko Udaleko Ordenantza orokorrean jarritako prozeduraren arabera egingo da.

2. Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, eta egindako lanen eta proiektu guztiaren eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

15. ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.) eta Gizarte Zerbitzuetako dirulaguntzak emateko Oinarri Espezifikoak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).



ZARAUZKO UDALA

16. ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka, berraztertze-errekurtsua jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; edo zuzenean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak, bi kasuetan, oinarri hauen argitalpenaren biharamunetik hasita kontatuko dira.